



EBAZPENA, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, 2023-2024 ikasturteko IRALE programaren lehenengo txandan irakastordu barneko euskara-ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntzak erabakitzeko ebazpenean egindako akatsak zuzentzekoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

2023-2024 ikasturteko IRALE programaren lehenengo txandan irakastordu barneko euskara-ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntzak erabaki dituen ebazpena aztertu da, eta egiaztatu da akats materialak edo egitezkoak daudela, eta zuzendu egin behar direla. Ebazpen hori 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren babesean ebatzi zen (EHAA, 2023-08-28: Hezkuntzako sailburuaren agindua, IRALE programaren baitan 2023. urtean irakastordu barneko euskara-ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten itunpeko ikastetxeentzako laguntzetarako deia egiten duena).

Horrenbestez, aipatu araudia eta aplikagarria den gainerako legedi orokorra kontuan hartuta, eta eman zaizkidan eskumenak baliatuz, honako hau,

EBATZI DUT:

2023-2024 ikasturteko IRALE programaren lehenengo txandan irakastordu barneko euskara-ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntzak erabakitzeko ebazpenean atzemandako akatsak zuzentzea, ondoren jasotakoaren arabera:

Ebazpenaren eranskinean,

Hau dio:

CPEIPS GAZTELUETA HLBHIP	014786	17.492,04 €
CPEIPS KARMENGO AMA HLBHIP	014567	15.213,99 €

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ





HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza Sailburuordetza
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección de Aprendizaje e Innovación
Educativa

Baina hau esan behar du:

CPEIPS GAZTELUETA HLBHIP	014768	17.492,04 €
CPEIPS KARMENGO AMA HLBHIP	014792	15.213,99 €

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria,
AMAIA AGIRRE PINEDO